

# Nekazaritzaz kanpoko arloan fitosanitarioen erabilera

**1311/2012 EDak produktu fitosanitarioen erabilera arautzen du, nekazaritzan zein nekazaritzatik kanpo.** Atxikitako taulan laburbiltzen dira araudiaren alderdi garrantzitsuenak, **nekazaritzaz kanpoko arloari dagokionez**, tratatuko behar den eremuaren eta espazio-motaren arabera.

Eremuak (*)	Espazio-motak (*)	Baldintzak	
		Berariazkoak (nekazaritzaz kanpoko arloa)	Orokorrak (nekazaritza arloa eta nekazaritzaz kanpokoa)
BERARIAZKOAK	ESPASIO PRUBLIKOAK Aisialdia Aisia Kirol-jarduna Kirol-zelaiak	- Saihestu hirugarrenak tratatu beharreko eremuan sartzea	<p>(1) <b>ROPON INSKRIBATZEA:</b> Ezinbesteko baldintza da erregistroan inskribatzea produktu fitosanitarioen hornidura, ekoizpen, komertzializazio, manipulazio, aplikazio eta erabilerekin lotutako edozein jardura profesional gauzatzeko.</p> <p>(2) <b>TXARTELA:</b> "P. FITOSANITARIOEN ERABILITZAILE PROFESIONALA" Profesional guztiak izan beharko dute egiten duten jardueraren mailarekin bat datorren txartela. - Oinarrizkoa - Kualifikatua - Fumigatzailea - Pilotu aplikatzailea</p> <p>(3) <b>AHOLKULARITZA:</b> Beharrezkoa izango da aholkulari-teknikari bat, izurriteen kudeaketa integralerako kasu guztietan. Aholkulariak "Aholkularitza Agiria" sinatu beharko du. Nekazaritzaz kanpo arloan, erabiltzaile profesionalak edo kontratatutako enpresak "Lan Plana" egin beharko du, aholkularitza-agiriarekin bat etorritik.</p> <p><b>PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA:</b> - Dagokion txarteletako titularrei baino ez zaizkie hornituko produktu fitosanitarioak. - Profesionalak ez diren erabiltzaileek profesionala EZ den erabilerarako baino ezingo dituzte erabili produktuak. - Istripuak edo isuriak ekiditeko egokiak diren lokal edo armairu itxietan biltegitratzea. - Ontzi huts guztiak edukiontzi batean biltegitratuko dira modu egokian, hondakinen kudeatzaile bati eman bitartean (SIGFITO).</p> <p><b>BAIMENAK ETA JAKINARAZPENAK (nekazaritzaz kanpoko arloa):</b> Tokiko Administrazioari baimena eskatu behar zaio, gutxienez tratamendua hasi baino 10 egun baliadun lehenago. Eskatera jaso ostean, Administrazioak 2 egun izango ditu herritarrei jakinarazteko.</p>
	TALDE ZAURGARRIAK Ikastetxeak Hautzaindegia Haur-jolasak Osasun-arretarako zentroak Adinekoen egoitzak	- Zentroko zuzendariari aurrez jakinaraztea (*) - Saihestu hirugarrenak tratatu beharreko eremuan sartzea	
HARRERA ZENTROAK ETA UGALKETA-ZELAIK	Barazki eta fruta ustiategiak Biltegiak Eraldaketa-instalazioak Ugalketa-zelaiak	- Ez dute baimenik eskatu behar tratamendua egiteko landa-eremuetan badaude.	
BESTE BATZUK	Zerbitzu-sareak	- Tratamendu fitosanitarioak aplikatuko dira soilik beste tratamendu bat erabili ezin denean, euria egiteko aukera txikieneko garaian. - Aholkularitza-agiriak bere baitan izango du ingurumen inpaktuaren Ebaluazioa.	
	Industria-eremuak	- Tratamendu bat baino gehiago aplikatu daitezke euria egiteko aukera txikieneko garaian. - Asfaltatuta badago, tratamendua ertzetan eta junturretan baino ez da aplikatuko.	
ERABILERA PRIBATUA	Erabilera pribatuko edo bizilagunen erabilerako espazioak Etxeko lorategiak Ortu familiarrak	- Txartelik ez duten erabiltzaileek profesionalak EZ diren erabilerarako produktuak aplikatu ahaliko dituzte. - Produktu sanitarioak <u>umeengandik</u> urrun gordeko dira.	

**(\*) AINTZAT HARTUTAKO EREMUAK:** Tratamendua aplikatu ez duten pertsonak aplikatutako produktuarekiko izan dezaketen esposizio posiblearen arabera ezarritako eremuak eta espazioak.

**Eremu espezifikoetan** agintaritza eskudunak zainduko du arriskua kudeatzeko neurri egokiak hartzen direla, eta lehentasuna emango zaie arrisku txikiko produktuei. Hala ere, minimizatu egingo da horien erabilera eta, hala badagokio, debekatu egingo da horiek erabiltzea.

**Talde zaurgarriek erabiltzen dituzten espazioetan, berriz, tratamenduaren eraginpeko inguruko zentroko zuzendaria jakinaren gainean jarriko da** eta, moduz justifikatua, tratamendua aplikatzeko ordua edo eguna aldatzeko proposamena egin dezake gutxienez 48 ordu lehenago.

**(1) ROPO (babes fitosanitarioko baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala):** Ezinbestekoa da erregistro honetan inskribatzea aholkularitza-jarduerak gauzatzeko eta zerbitzuak emateko. Foru aldundiei dagokie erregistroa kudeatzea.

**(2) "Produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionala" TXARTELA:** Txartelak egiaztatzen du titularrak gaitasun-maila bakoitzari dagozkion ezagutzak dituela:

- Oinarrizkoa: Tratamenduen langile laguntzaileak, eta tratamendua ustiategietan bertan langile laguntzailerik gabe aplikatzen dituzten nekazariak.
- Kualifikatua: Tratamenduen arduradun diren erabiltzaile profesionalak, tratamenduak langile laguntzaileekin

- aplikatzen dituzten nekazariak, eta erabilera profesionaleko produktu fitosanitarioak saltzen dituzten langileak.
- Fumigatzailea: Produktu fitosanitarioak erabiliz tratamenduak egiten dituzten aplikatzaileak, baldin eta produktu horiek toxikoak, oso toxikoak edo hilgarriak diren gasak badira edo antzeko gasak erabiltzen badituzte.
- Pilotu aplikatzailea: Tratamendu fitosanitarioak aireontzietatik edo aireontzien bidez aplikatzen dituzten langileak.

2015eko azaroaren 26az geroztik, dagokion txarteleko titularrei baino ez zaizkie hornituko "erabilera profesionaleko" produktu fitosanitarioak.

Txartela ez duten erabiltzaileek "erabilera ez profesionalerako" merkaturatzen diren produktu fitosanitarioak baino ezingo dituzte erabili.

Erabilera profesionaleko produktu profesionalen erakunde banatzaile edo saltzaileei dagokienez, produktu fitosanitarioak erabiltzen dituzten langile guztiek (biltegitratzaileak, saltzaileak...) dagokien txartela izan beharko dute.

**(3) AHOLKULARITZA:** Arlo profesional guztiek izan behar dute aholkularia, nekazaritza arloek zein nekazaritzaz kanpokoek, erabilera pribatuko espazioek izan ezik. Erabiltzaile profesionalak baino ezingo dituzte aplikatu produktu fitosanitarioak. Horretarako, kontratua sinatu beharko dute aholkulariaren eta erabiltzaile profesionalaren edo dagokion enpresaren artean.

**(4) BESTE ALDERDI INTERESGARRI BATZUK:** Debekatuta dago produktuak airetik aplikatzea, salbu eta agintaritza eskudunak horretarako berariazko baimena ematen ez badu.

1311/2012 EDan VII. eta VIII. kapituluek ingurune urtarra eta edateko ura babesteko eta eremu espezifiketan arriskua murrizteko neurriak ezartzen dituzte hurrenez hurren.

---

~~1311/2012 EDari buruzko informazio gehiago - ELIKA (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/produktu-fitosanitarioen-erabilera-iraunkorra/>)~~

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)